

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## 174

*14/2017 DEKRETUA, urtarrilaren 10ekoa, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeako (HABE) zuzendaria izendatzeko dena.*

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18.j), 26.6. eta 29. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2017ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Jokin Azkue Arrastoa jauna Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeako (HABE) zuzendari izendatzea.

2. artikulua.– Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urtarrilaren 10ean.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.